



XXXII.UDA IKASTAROAK DONOSTIAN XXV. EUROPAR IKASTAROAK

PERTSONEN ESKUBIDEAK BABESTEA FINANTZA-ERAKUNDEEKIN DITUZTEN HARREMANETAN

Helburua: Azken urteotan, gure gizartea nozitzen ari den krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioz, esku lotuta ikusten ari gara zenbait herritar izugarrizko ahultasun eta babesgabezia egoeran daudela, bai finantza-produktuak edo finantza-zerbitzuak erosi dituztelako, bai bankuen jarduera batzuek kontrolatu gabeko ondorioak sortzen dituztelako, familiaren bizitzan eragin handia dutenak. Egoera hori ezin larriagoa bihurtzen da hipotekak betearaztean eta ohiko etxebizitza galtzean.

Arartekoak arazo horren gaineko eztabaida piztu nahi du, kontzeptu-ikuspegi hau abiapuntu hartuta: banku-zerbitzuak interes orokorreko zerbitzuak al dira? Ikuspegi aprioristiko horretatik begiratuta, administrazioaren esku-hartzeak zuzena behar du izan, horren gaineko araudia eta kontrol eraginkorra barne direla.

Era berean, Estatuak ziurtatu behar du herritarrek kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dituzten eskubideak legez babestuta egongo direla. Ziurtatu behar da banku-kontratazioak berekin dakartzan betebeharrak guztietan beteko direla oinarrizko eskubide horiek.

Gainera, etxebizitza izateko eskubidea Konstituzioan babestutako eskubidea dela kontuan hartuta aztertu behar da hori guztia. Horregatik, ezusteko gertakariren baten ondorioz etxebizitza galtzen bada, hipoteka betearazi delako, administrazioak zenbait neurri abiarazi behar ditu oinarrizko eskubide horri eusteko.

Oharrak:

Parte hartzeko formatu malgua erabili nahi da, elkarrizketa eta eztabaida ahalbidetzeko.

Jardunaldi hau, unibertsitateko ikasleentzat ez ezik, herri-administrazioetako langile, gizarte-erakunde, kontsumitzaileen elkarte, kaltetutako pertsonen elkarte, Justizia administrazioari kide eta alderdi politikoentzat ere bada.



EGITARAUA

2013ko uztailaren 11a. Miramar jauregia. Donostia-San Sebastián (goiz eta arratsaldeko jardunaldia)

- 9: 00 h Agiriak eskuratzea
- 9:15 h Arartekoaren mintzaldia
- 9:45 h Finantza-zerbitzu eta finantza-produktuen kontsumitzaileen eskubideak, oinarrizko eskubide gisa. Espainiako eta Europako araudia. Zuzenbide konparatuko konponbideak eta jarduera egokiak.
FERNANDO ZUNZUNEGI PASTOR, abokatua eta banku- eta burtsa-zuzenbideko irakaslea Karlos III.a Unibertsitatean.
- 10:30 h Kafea hartzeko etenaldia
- 11:00 h Finantza- eta banku-merkatuen egoera eta familiaren eta gizartearen ekonomian duten eragina.
M.ª CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA. Teoria Ekonomikoko katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean.
- 11:45 h Eztabaida
- 12:15 h Epaitegietan herritarren eskubideak babestea, banku-zerbitzuek eta banku-produktuek eragindako erreklamazioetan.
EDMUNDO RODRÍGUEZ ACHUTEGUI. Arabako Probintzia Auzitegiko magistratua.
- 13:00 h Eztabaida
- 14:00 h Bazkaria
- 16:30 h Mahai-ingurua: Administrazioa kontrolatzea eta jarduera egokiak izatea banku-produktuen eta banku-zerbitzuen arloan herritarren eskubideak defendatzean. Hipoteka-betearazpenen aipamen berezia.
MANUEL VALÍN LÓPEZ. Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saileko zuzendaria.
MARIO YOLDI DOMÍNGUEZ. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plangintzako zuzendaritza.
JOSÉ RAFAEL RICH RUIZ. Abokatua eta Kordobako Stop Desahucios plataformako aholkulari juridikoa.
MARÍA JOSÉ FERNÁNDEZ DE LANDA MONTOYA. Arartekoko aholkularia.
- 18:00 h Eztabaida
- 19:00 h Amaiera